



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

HEZKUNTZA  
ETA KIROL  
FAKULTATEA  
FACULTAD  
DE EDUCACIÓN  
Y DEPORTE

# **KULTUR ANIZTASUNA GELAN: harrera-planaren garrantzia ikastetxeetan**

## **GRADU AMAIERAKO LANA**

EGILEA: Aitor Garrido Albisu

ZUZENDARIA: Irune Corres Medrano eta Ainara Duque Ingunza

**2019**

## **LABURPENA**

Gaur egun, gure gizartea geroz eta globalagoa da. Gure inguruan herrialde, errealitate edota kultura ezberdineko pertsonaz inguratirik gaude. Eskoletan ere egoera berdinen aurrean gaude. Beraz, eskolen zeregina hezkuntza inklusibo bat eraikitzea izango da, ikasleen arteko berdintasuna oinarri izanik, pertsona guztiak aintzat hartzen dituen, bazterketarik eman gabe, ikasle guztiei erantzunak emanez eta bizikidetzak interkultural bat dagoelarik. Bestalde, gizartean ematen ari diren aldaketak ikusiz, interesgarria izango litzateke irakasleek aurrera eramaten dituzten metodologia guztiak egungo egoerara egokitzea. Azken finean, aniztasunari aurre egiteko hezkuntzak etengabeko aldaketak egin beharko ditu gizartearen erritmora joateko eta ikasle guztiei erantzun bat emateko.

Aipatutako guztiagatik eta ikastetxeetan Harrera-planak duen garrantziarengatik, lan honekin alde batetik Harrera-plana nola landu eta aurrera eramaten den eta bestetik ea Eusko Jaurlaritzak eskuragarri duen Harrera-plana egiteko dokumentu orientabidea eskolek betetzen duten ikusi ahal izango da.

Hitz gakoak: Kulturartekotasun, Harrera-plana, bizikidetzak interkulturala, hezkuntza inklusiboa.

## **RESUMEN**

Hoy en día, la sociedad en la que vivimos es cada vez más global, debido a que en nuestro contexto podemos encontrar gente de diversos países, realidades o culturas. En las escuelas la situación es parecida. Por lo tanto, la tarea principal de las escuelas deberá ser construir una educación inclusiva, teniendo de base las diferencias entre los alumnos y las alumnas, sin ninguna exclusión, respondiendo a las necesidades de todo el alumnado y consiguiendo una convivencia intercultural. Por otro lado, debido a los cambios que está sufriendo la sociedad, sería recomendable que las metodologías que llevan a cabo los profesores estén adaptados a la situación actual. A fin de cuentas, la educación ha de hacer cambios constantes para seguir el ritmo de la sociedad y así combatir la diversidad.

Por todo lo citado anteriormente y por la relevancia que tiene el Plan de acogida en los centros escolares, con este trabajo se podrá ver por una parte como se trabaja y se lleva a cabo el Plan de acogida y por otra parte ver si los centros escolares cumplen el documento de orientación para crear el Plan de acogida que pone a disposición el Gobierno Vasco.

Palabras clave: Interculturalidad, Plan de acogida, convivencia intercultural, educación inclusiva.

## **ABSTRACT**

Day by day the society is getting more and more global. This leads to be surrounded by people from different countries and cultures. Since we are facing those changes at schools an inclusive education is needed, whose pillars will be equality between students. We cannot leave aside that this system must be adapted to all types of people regardless their culture in order to have an intercultural coexistence. Besides, taking into account the continuous changes that are placing in the society, it would be interesting to update all the methodologies the teachers are carrying out. At the end of the day the educational system (teachers included) needs to be continuously ready to catch up with the changes of the society.

This project will be focused on two main things. Firstly, how to create and put in practice a welcome plan and secondly, whether the welcome plan that the Basque Government provides is followed by schools or not.

Key words: Interculturality, welcome plan, intercultural coexistence, inclusive education.

# AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	4-6
2. Marko teorikoa.....	6-16
2.1. Kulturartekotasunaren inguruko oinarriko kontzeptuak.....	6-7
2.2. Kultur arteko hezkuntza inklusiboa.....	8-9
2.3. Hezkuntza inklusiboa oztopatzen duten elementuak.....	9-12
2.3.1. Eragozle politikoak.....	10
2.3.2. Kulturarekin zerikusia duten eragozleak.....	10
2.3.3. Eskoletan ematen diren oztopoak.....	10-12
2.4. Kultur arteko hezkuntzarako estrategiak.....	12-14
2.5. Inklusio ereduak eskolan.....	14-16
2.5.1. Eredu asimilazionista.....	14
2.5.2. Eredu orekatzailea.....	15
2.5.3. Eredu segregatzailea.....	15
2.5.4. Eredu interkulturala.....	15-16
2.6. Egoera gaur egungo eskoletan.....	16
3. Helburuak.....	16-17
4. Metodoa.....	18-20
4.1. Populazioaren datu soziografikoak.....	18
4.2. Prozedimendua.....	19
4.3. Erabilitako teknikak.....	19-20
4.3.1. Elkarrizketa.....	19-20
4.3.2. Metodo konparatiboa.....	20
5. Emaidzak.....	20-23
6. Ondorioak.....	23-26
7. Hobekuntza proposamenak.....	26-30
8. Erreferentzia bibliografikoak.....	31-33
9. Eranskinak.....	34-40

# 1. SARRERA

Walsh-en (2005) aburuz, kulturartekotasunak, “kulturen artean” esan nahi du, baina ez da soilik kulturen arteko harremana, baldintza berdinetan ematen den hartu eman bat baizik. Gainera, idazle honen arabera, kulturartekotasuna lortu nahi den helburu bat izateaz gain, hau, harremanetarako prozesu, pertsonen arteko komunikazio eta ikaskuntza, jakintza, balore eta ohitura desberdinen moduan ulertu beharko litzateke ere. Kulturartekotasunak kritikatu ez ezik, orain arte bakarrak kontsideratzen ziren eredu horiek aldatzen saiatzen da. Gainera, Alvarezen (2014) iritziz kulturak beste modu batean aurkezten ditu, hau da, ekarpen handiak egin dezaketen sozietate, herri edo kultura bizidunen moduan.

Eskolak, ikaskuntzara loturiko eremu baten moduan ulertzen ditugu. Bertan, adin, sexu, arraza, egoera sozio ekonomiko desberdineko pertsonak ikus ditzakegu, beraz, ikasle bakoitzaren errealitateak oso desberdinak dira. Gaur egungo gizartea, une oro eraikitzen ari da hein handi batean, kultura ezberdinen ekarpenengatik. Prozesu honetan, protagonismoa talde berriek eta jada gizarte horretako partaideek partekatzen dute, bakoitza bere ezaugarriekin eta eremu berdinean (Saez, 2003). Azken finean, Septienen (2006) hitzak jarraituz, errealitate berriei planteamendu administratibo zein akademiko berriek erantzun behar dizkiote, ondoren planteamendu hauek estrategia berriak sortzeko azaltzen diren erronkei aurre egin ahal izateko. Gauzak horrela, eskolak ikasle horiei guztiei erantzun bat eman beharko die, ikasle hauen ezaugarriak eta beharrak kontuan hartuz, inongo bazterketarik eman gabe. Beraz, orain arte eskolek beraien eskuetan izan duten erronka handienaren aurrean gaude, hots, pertsona guztientzako den Hezkuntza inklusibo bat eraikitzea.

Hezkuntza inklusiboa gizaki guztiek duten eskubide baten moduan ulertzen da. Honek, ez du onartzen hezkuntza sistemak soilik ikasle batzuentzat zuzendurik egotea. Horregatik, Fernandezek (2003) ikasle guztiei zuzendurik dagoen hezkuntza sistema bat diseinatzearen beharra ikusten du. Hezkuntza inklusiboak, ikuspegi desberdin bat du arazoak identifikatu eta irtenbide bat emateko garaian. Barriok (2008) inklusioak, parte hartzea eta ikaskuntza oztopatzen dituzten elementuak murrizten saiatzen da eta era berean, hezkuntza komunitateko partaide guztiei laguntza emateko baliabideak indartzen dituela baieztatzen du.

Azken urteetan ikasgeletan geroz eta kultura ezberdineko ikasle gehiago ikus ditzakegu, ondorioz, eskola, kultur aniztasunera moldatzearen premian ikusi da. Eskola berri honen oinarriak errespetua eta kultura bakoitza baloratzea izango dira guztiak aintzat hartuz eta elkarren arteko harremanak sortuz. Sáez-ek (2003) aipatzen duen

moduan, immigrazioaren fenomenoa erronka garrantzitsu bat da gizartearentzat, baina aldi berean handitzen doan buruhauste bat ere. Horregatik, gizartea hezkuntzaren erantzun egoki bat eskatzen ari da, eskolatik haratago doan hezkuntza bat, gaur egun bizi dugun errealitatearekin lotura duelarik.

Era berean, aniztasun honen aurrean irakasleen jokaera ezberdina da. Olivenciaren (2008) ustez irakasle batzuek modu positibo batean ikusten dute kulturartekotasunarekin zerikusia duten jarduerak eskola komunitate guztiari zuzenduta egotea eta ez soilik ikasle atzerritarrei zuzentzea. Aldiz ikerketa bati esker, aniztasunari buruz irakasleek duten pertzepzioa eta sinesmenak zeintzuk diren ikusi ahal izan da. Bertan ikus daiteke, aniztasuna faktore kulturei lotzen denean, honi ez zaiola garrantzirik ematen, izan ere, beste kultura bateko jatorria duten ikasle kopurua oso eskasa baita. Era berean, Moliner eta Molinerrek (2010) aipatzen duten moduan aniztasun hau arazo eta erronka moduan hartzen dute irakasleek eta eskolek, izan ere, aniztasunarekin sortzen diren arazoei aurre egiteko, eskolek erronka ezberdinak sortu beharko baitituzte.

Rodriguezek (2004) dio azkenaldian Espainian gertatutako egoera sozial batzuek agerian utzi dutela Espainian kulturartekotasuna erabat diskriminatzailea dela, izan ere, atzerritarrak eta emigranteen arteko bereizketa egiten baita. Lehenak Europa erdialdeko pertsonak dira (lehen munduko pertsonak deiturikoak) eta hauekiko ez da inolako sentimendu arrazista edota xenofoborik agertzen. Aldiz, Kulturartekotasuneko diskurtsoa emigranteekin erabiltzen da, hirugarren mundutik datozen pertsonekin hain zuzen ere.

Amaitzeko, ikasle atzerritar hauek ahalik eta modu azkarrean eskola komunitateko partaide sentitu daitezzen, Harrera-plana deituriko dokumentua erabiltzen dute eskolek. Azken finean Ortegarantzak (2004), dokumentu honen xede nagusia, ikasle berriari ikastetxean egokitzen laguntzea da. Dokumentu honetan, ikasle atzerritar bat eskolara etortzen denean jarraitu beharreko orientabide ezberdinak agertzen dira, hala nola, ikasleari harrera nork egingo dion, zein informazio mota emango zaion, etabar.

Hau guztia aipaturik, argi dago aniztasunari trataera egoki bat ematea etorkizuneko irakasle on erronka bat dela eta horregatik gai hau aukeratzea erabaki dut. Bestalde, ikerketa honek modu argiago batean aztertuko du ikastetxeek beraien Harrera-plana nola egiten duten, hots, zein partaidek parte hartzen duten, ematen diren pausoak zeintzuk diren, etabar. Aldi berean, ikastetxeek Eusko Jaurlaritzaren Harrera-plana egiteko dokumentu orientabidea zein puntura arte betetzen duten ikusi ahal izango da. Horretarako lan honen egitura bi zati nagusietan banatzen da. Alde batetik, egitura

teorikoan kulturartekotasunarekin lotura duten kontzeptuak azalduko dira gaien murgiltzen joateko eta beste alde batetik hezkuntza inklusiboari buruz ere hitz egingo da honen errealitatea zein den jakiteko. Bestalde, lanaren bigarren atalean, bi ikastetxeen harrera-plana aztertuko da eta beraien artean konparaketak egingo dira. Azkenik, kulturartekotasuna ikasgelan aurrera eramateko unitate didaktiko bat aurkeztuko da hobekuntza proposamen moduan.

## 2. MARKO TEORIKOA

Emigranteen etorrerak planteamendu berri bat eragin du gure herrialdeko hezkuntza sisteman, orain arte azaldu ez zena. Rodriguezek (2005) baieztatzen du, planteamendu honek erreferentzia moduan hezkuntza interkulturala duela, hau, gure ikasgeletan sortzen den heterogenitatearen ondorioa delako. Hau kontuan hartuz, ikusten dugu ikasgela, errespetua, berdintasuna edota askatasuna bezalako baloreak lantzeko leku aproposa dela, azken finean hezkuntza inklusibo bat erdiesteko. Horretarako, nahitaezkoa izango da kulturartekotasuna gelan lantzeko material eta errekurtsio didaktikoen aukera eskuragarri izatea eta ahal den heinean zabala izatea.

Ildo beretik jarraituz, Fernándezek (2003) aipatzen duen moduan, hau praktikara eramatea oso lan konplexua da, hots, denentzako eskola bat errealitate bihurtzea, guztiei aukera berdina emanaz. Gainera, orain arte selektiboak, diskriminatzaileak eta baztertzailak izan diren eskoletan, beraien irakasteko eta ikasteko modua eraldatu beharko litzatekelako.

### 2.1. KULTURARTEKOTASUNAREN INGURUKO OINARRIZKO KONTZEPTUAK

Kultura terminoari buruz jasotzen diren definizioak anitzak dira. UNESCO-ren (2005) aburuz kultura, gizarte talde batek bere osotasunean biltzen dituen ezaugarri bereizgarri espiritualak, materialak, intelektualak eta emozionalak dira. Harris-ek (2011), Taylorren definizioa erabiltzen du kultura zer den definitzeko, hau da, gizakiak lortutako jakintza, sinesmenak, artea, morala, ohiturak eta gainerako gaitasunak dira.

Aniztasunari dagokionez, Lumby eta Colemanek (2007) esanahi ezberdinak izan ditzakeen kontzeptu bezala definitzen dute. Hau pertsonen eragindako aldaketa, zentzu edota joeretara egokitzen da.

Behin kultura eta aniztasuna kontzeptuak bitan banaturik zer esan nahi duten ikusirik, hurrengo pausoa kultur aniztasuna kontzeptuaren definizioa argitzea izango da xedea. UNESCO-ren (2005) hitzetan, kultur aniztasuna, munduan dauden kultura

ezberdinak dira. Honek alde batetik jada existitzen diren kulturen zainketa eta promozioa inplikatzeko du eta bestetik, beste kultura batzuekiko errespetua erakusten du.

Ildo beretik jarraituz, Hildagoren (2017) esanetan bi bizikidetzaren modu daude, alde batetik, multikulturalitatea eta bestetik interkulturalitatea. Lehenak maila berean jartzen ditu espazio berean bizi diren bi kulturak, baina beraien artean inongo aberastasunik egon gabe, hau da, ez dago inongo erlaziorik beraien artean. Bigarrenak aldiz, espazio berdinean bizi diren kulturen arteko komunikazioa eragiten du. Era berean, kultura hauen artean aberastasun bat egoten da eta kultura bakoitzaren errekonozimendua eta balorazio jasotzen dute.

Oinarrizko kontzeptuekin amaitzeko, komenigarria litzateke integrazioa eta inklusioa bezalako kontzeptuak argi uztea. Helburu berdinak edota antzekoak izan arren hitz hauek sarritan kontzeptu berdinen moduan erabili izan dira, baina inklusioa eta integrazioa ez dira sinonimoak. Modu argiago batean ulertzeko eskola integratzaile eta inklusiboen arteko desberdintasunak, Alemañy-k (2009) taula batean azaltzen ditu hauek:

Taula 1

Eskola Integratzailea	Eskola inklusiboa
Diagnostikoa zentratzen da	Kolaborazio bidezko arazoaren ebazpenean zentratzen da
Hezkuntza berezira zuzentzen da (behar bereziak dituzten ikasleak)	Hezkuntza guztiarentzat zuzenduta dago (Ikasle guztiak)
Sartzea partziala eta baldintzatua da	Sartzea osoa eta baldintza gabea da
Azaleko aldaketak eskatzen ditu	Sistemetan hausturak eskatzen ditu (Aldaketa handiak)
Ikasleak zentratzen da (ikaslea programa zehaztuetan kokatzen da)	Ikasgelan zentratzen da
Limitazioak ezkutatzeko joera du sartze kantitatea areagotzeko.	Ez ditu limitazioak ezkutatzeko, hauek errealak baitira
Berdintasunean eta lehiakortasunean oinarritzen da	Zuzentasunean, kooperazioan eta solidaritatean oinarritzen da

## 2.2. KULTURARTEKO HEZKUNTZA INKLUSIBOA

Latasek (2002) dioenez, Hezkuntza inklusiboaren kontzientziaren jatorria 1990ean ematen da, Tailandiako Joemtien hirian ospaturiko UNESCO-ren konferentzia batean. Bertan, herrialde garatu batzuk elkartu ziren eta denentzako hezkuntzari buruz hitz egin zuten inklusioaren lehen ideiak sortuz. Lau urte beranduago Salamankan, beharrezkoa ikusi zuten inklusiora bideratzen zuen hezkuntza sistema bat sortzea edo garatzea. Era berean, Salamankako deklarazio honekin orientazio inklusiboa ume guztiek duten eskubide bat bezala hartzen da.

Arestian aipatu dugun bezala, gaur egun gure ikasgelak aniztasunez beterik daude, kultura ezberdineko ikasle asko ikus ditzakegu, beraien errealitateak oso ezberdinak direlarik. Sarritan, aniztasun hau irakasteko garaian oztopo gisa ikusten da zailtasunak direla eta. Fernándezen (2003) ustetan ikuspegi inklusibo batek gizabanakoen ezberdintasunak aitortu eta baloratzeaz gain, hezkuntza aberasten duela dio. Hau da, eskola inklusiboek gizabanako bakoitza bera den moduan onartzen du, inongo diskriminazio eta bazterketarik egin gabe eta ikasleen artean dauden ezberdintasun horiek onuragarritzat hartzen ditu hezkuntza aberasteko ezberdintasunetatik ikasiz.

Saezen (2003) hitzak jarraituz, hezkuntza inklusibo baten xede nagusia gizabanako bakoitza eta honen kultura, bere duintasun eta balioa baieztatzea izango da. Honek ere bere zereginak izango ditu, hala nola, pertsonak motibatzea, bakoitzaren gaitasunak indartzea, norberaren ahalera intelektuala, fisikoa eta emozionala sustatzea eta azkenik norberak bere baitan duen material eta potentzial anitz hori garatzea eta aldi berean kanporatzea.

Bestalde, Carbonellen (2008) iritzi apalean kultur aniztasuneko hezkuntza testuinguruko bizikidetzat, non ikasle multzo heterogeno bat dagoen, interes eta motibazio ezberdinekin, erronka handi bat da zalantzarik gabe irakaslearentzat. Hori dela eta, noizbehinka hainbat gatazka azaltzea ikasgelan ohikoa izan daiteke. Olivenciaren (2008) ustetan gatazka hauei dagokienez, jatorria bi zatitan banatzen da, alde batetik, eskola instituzioaren konfigurazioan eta bestetik irakaslearen metodologian, hots, gutxiengoko kulturekiko erakusten duen jarrera eta eskolaren antolakuntza. Lehen aipatu dugu moduan, irakasle asko ez dira eroso sentitzen aniztasun honen aurrean hau oztopo baten moduan ikusten baitute, izan ere, honek ohiko irakasteko modua eraldatzeko beharra azaltzen duelako, ikasle guztiei erantzun bat eman ahal izateko. Hori dela eta, irakasle hauen jarrera ikasle hauekiko asko aldatzen da, beste ikasle batzuei lehentasuna emanez.



Bartolome eta Lopezen (2008) esanetan, kultur arteko gatazkak aniztasuneko eskoletan ematen diren horiek dira, esanahi ugartasun batzuek edo egoera anitzek sorturikoa.

Gatazka horiei aurre egiteko helburuarekin eta ondorioz gure ikasgeletako bizikidetasuna hobetzeko, Aguado, Besalú, Jordán, Essomba, Olivencia eta Sorianok (2008) irakasleen formakuntzan hainbat xede ezberdin zehazten dituzte:

- Errespetuzko formakuntza bultzatzea gutxieneko kulturekin, beraiekiko jarrera positiboak landu ahal izateko.
- Modu positibo batean onartzea errealitate kulturala hezkuntzako testuinguruetan.
- Gainontzeko kulturekiko errespetua sustatzea. Aldi berean, kultura bakoitzetik zerk bereizten gaituen ezagutzea eta batzen gaituena aurkitzea.
- Kulturarteko hezkuntza, testuinguru hezigarri batetik abiatu behar da, ikaskuntzako oinarritzko hiru dimentsio dituelarik, hala nola, pentsatu, sentitu eta egin.
- Solidaretasuna, tolerantzia eta konpromezua sustatzen duten jarduera hezigarriak garatzea.
- Beharrezkoa da kulturartekotasunaren jakintzara barneratzea ikerketa eta ikaskuntza kolaboratiboaren bitartez.
- Gure testuinguruan ditugun kulturei buruzko materialak sustatzea eta hauek sortzera motibatzea.
- Kulturartekotasunaren benetako kontzientzia sortzea lanketa interdiziplinaren bitartez.

Honen bitartez, ingurune bat sortuko da non sexu, kultura edota ideia ezberdineko pertsonak elkarrekin biziko direlarik. Gizabanako bakoitzaren onurak eta ezberdintasunak aintzat hartuko dira hauekiko interesa azalduz eta errespetatuz, gure ikasgela aberasteko helburuarekin.

### 2.3. HEZKUNTZA INKLUSIBOA OZTOPATZEN DUTEN ELEMENTUAK

Gonzalezek (2008) dio, alde batetik eskola elkarbizitzarako eremu bat izan arren, sarritan zaila egiten dela ikasle guztiak komunitate horretako partaide sentiaraztea eta bestetik eskolek duten antolakuntzaren ondorioz, batzuetan arriskuko inguru bat sortzen da zenbait ikaslerentzat. Honekin jarraituz, Lopezen (2011) egitura kontuan hartuz, gaur egun gure gizarteko eskoletan, parte hartzea, elkarbizitza eta ikaskuntza oztopatzen duten elementuak hiru multzotan banatzen dira.

### **2.3.1. Eragozle politikoak**

Hezkuntzaren arloan, arau batzuek (UNESCO, 1990), denentzako hezkuntzari buruz mintzatzen diren arren, bien bitartean hezkuntza bereziko eskolak onartzen dira. Ildo beretik jarraituz, kurrikulumari dagokionez pertsona guztientzako berdina izan behar dela esaten den arren, Lopezek (2011) dio batzuetan kurrikulumaren moldaketari buruz hitz egiten dela kontraesanak sortuz. Halaber, Escudero eta Martinez (2011) bat datoz Hezkuntza inklusibo bat eraikitzeko, marginazioaren aurka lan egiten duten politika guztiak lagungarriak direla esanez, baina hauek praktikan jartzea nekez lortuko litzatekela.

### **2.3.2. Kulturarekin zerikusia duten eragozleak**

Ikasleen sailkapenak egiterako garaian, diagnostiko sailkapenak egiten dira nahiz eta hainbat ikertzaileen esanetan hauek ez izan guztiz fidagarriak. Ildo beretik jarraituz, Lopezen (2011) ustez ebaluazio diagnostikoa baliabide egoki bat bezala ikusten den arren ikasleen hezkuntza hobetzeko, errealitatean, segregazioa eta diskriminazioa eragiten duen etiketatze baliabide bat besterik ez da.

Etiketekin jarraituz, Clementeren (2013) aburuz ikasle bat etiketatzen denean, azkenean ikasle honek, jarri dioten etiketa hori asimilatzen bukatuko du eta honen jokatzeko modua etiketa horren arabera izango da. Gainera, ikasleak gaztaroan daudenean, hauen izateko erak aldaketa handiak jasotzen ditu, beraz, etiketa batek modu negatiboan eragin dezake honen garapenean.

### **2.3.3. Eskoletan ematen diren oztopoak**

Kasu batzuetan, baliteke, ikasgela ez kontsideratzea elkarbizitzako eta ikasketa eremua. Lopezen (2011) arabera hezkuntza inklusibo bateko ikuspegian, ikasleek jakintzak modu partekatu batean ikasteko eta aldi berean elkarbizitzako eta ikaskuntzako komunitate bat sortzeko aukera izango dute. Hau jasotzeko, beharrezkoa izango da ikasle orok bere esperientziak edota iritziak azaltzeko tartea izatea, hots, elkarrizketarako aukera (López, 2011). Aldi berean, Castro eta Moralesen (2015) ustetan, ikasgelako giro egoki bat izateak ikaskuntza prozesuan eta ikaslearen garapen fisiko, sozial eta kognitiboan modu positibo batean eragingo du.

Bestetik, kurrikuluma arazoan ebazpenean oinarritu beharrean, disziplenetan eta testu liburuetan oinarrituta dagoenean, oztopo didaktikoak ere sor daitezke. Hau ekiditeko, Lopezen (2011) iritziz, kurrikulumaren xedea, ikasleen arteko desberdintasunak erauztea izan beharko litzateke, hezkuntza praktika aldibereko eta dibergenteak eskainiz. Honen harira, Gonzalezek (2008) ustez, sarritan, ikastetxeetan

ikus daitezkeen metodologiak ikasleetan zentratuak egon behar, irakasleetan zentratuak daude. Erabiltzen dituzten irakasteko estrategiak mugatuak dira, ikasle talde guztientzat berdinak eta sarritan material horiek ez daude ikaslearen behar eta ezaugarrietara egokituta.

Orain arte aipatu moduan, ikasle guztiak modu berdinean kontuan hartu behar ditugu, hori dela eta, funtsezkoa da ikasle guztientzat kurrikuluma berdina izatea, inongo salbuespenik egin gabe. Hala eta guztiz ere, nahiz eta berdina erakutsi, hau modu desberdinetan ikasteko aukera izango dute ikasleek, irakaslearen arabera.

Beste alde batetik, espazio eta denboraren egituraketaren inguruan, Lopezek (2011) aitortzen du horrelako praktikak martxan jartzerakoan, oso ohikoa da zalantzak edota zailtasunak agertzea eskolaren antolaketan, baita ere hainbat kontraesan irakaslearen ekintzetan. Arazo honen arrazoi nagusia, hezkuntza inklusiboaren kultura eza da. Era beran, Laourden eta Concepcionek (2002) diote ikasgela jakintzak ikasteko eremua izateaz gain, ikasleek bertan denbora luzea igaroko dutela, beraz irakasleak, ikasgelaren antolamenduari buruzko hausnarketa egin beharko dituztela. Laburbilduz, Lopez-en (2005) aburuz ikasgela modu egokian antolatzeke funtsezkoak izango dira ondorengo elementuak: moldagarritasuna, malgutasuna, barietatea, balioanitzia eta komunikagarria.

Azkenengoz, irakaslea egoera berri hauetara ohitu beharko da, aniztasunari aurre egin nahi bazaio eta horretarako funtsezkoa izango da irakaslearen formakuntza. Arestian aipatu bezala, horrelako praktikak martxan jartzeak esfortzu handia eskatzen dio bai eskolari zein irakasleari. Hein handi batean azken hau izango da arduradun nagusia eta honek alde aurretik zuen metodologia eraldatu egin beharko du eskola inklusibo batetara egokitzeko.

Aniztasun honen aurrean, Garciak eta Oliverasek (1999) diote irakasleak behar berrietara egokitzeko programa ezberdinekin topatzen ari direla, baina oraindik ere programa horiek ez direla nahikoak behar horiei modu egokian erantzuteko. Gainera, ikasgelan gizarte arazoak sortzen direnean, irakasle askok beraien mugak zeintzuk diren begi bistan jartzen dituzte. Diazek (2004) esanetan, irakasle batzuek arazoari aurre egiten diote eta beste batzuk aldiz ez diote jaramonik egiten. Ondorioz, horrelako egoeretan ikus daiteke irakasle askok ez dutela formakuntza handirik kulturartekotasunaren arloan.

Irakaslearen jarrerak, pentsatzeko moduak edota ekintzek inklusioaren aldeko ingurune bat sortu dezakete ala ez. Bestalde, Lopezek (2011) iritzi apalean irakasteko ereduak eskola komunitateko pertsona oro inplikatzeko badu, irakasleak bere

metodologia aldatzeko erraztasun handiagoak ipiniko ditu eta berak pentsatu beharko ditu ikasteko eta irakasteko prozesuak nola aldatu.

Behin, inklusio oztopatzen duten elementu hauek zeintzuk diren jakinda, ondo legoke honek dakartzan ondorioak zeintzuk diren aipatzea. Oztopo hauek guztiek sorrarazten duten ondorioak nagusia eskola porrota da. Eskola porrotaren arrazoiak hiru multzo ezberdinetan sailkatuko genituzke Escarbajal eta Navaroren (2018) arabera. Familiari dagokionez, gurasoen inplikazio eta konpromezu eskasa ikus daiteke, izan ere, hauek ez baitiote inongo laguntza ematen ikasleari. Ikuspegi pertsonalean, ikasleak ez dute inolako interesik erakusten eta ikasteko motibazio oso urria da. Azkenik, hezkuntzaren ikuspegian, ikasle hauek irakaslearekin ez dute koordinazio handirik izaten eta erabiltzen diren metodologiak ez dira egokienak ikasle hauekin lan egiteko.

Ikasle emigranteak dituen arazo guztiak kontuan hartuz, Lopezen (2011) esanetan normalizat hartzen da bertako ikasleek baino errendimendu akademiko eskasagoa edukitzea. Hala eta guztiz ere, hainbat autoreen arabera, diferentzia horien arrazoiak ikasle emigrante horien familien ezaugarri sozioekonomikoak dira.

Eskola porrotak arazo larriak dakartza bai ikuspegi pertsonalean zein sozialean. Alde batetik, eskola porrotak maila akademikoa handitzeko aukerak kentzen ditu, hau da, ikaslearen progresio akademikoa eten egingo da. Hala eta guztiz ere, Vaqueroren (2005) hitzak kontuan hartuz, arazoak ikuspegi ekonomikotik haratago doaz, izan ere, sarritan eskola porrotarekin batera gizarte porrota etorriko litzateke eta honen ondorioa gizarte bazterketa.

#### 2.4. KULTURARTEKO HEZKUNTZARAKO ESTRATEGIAK

Lopezen (2011) iritziz, eskola inklusibo bat sortzerako garaian, aldaketa handiak egin beharko dira eskola komunitatean eta era berean, ikasle, irakasle eta kurrikulumaren funtzioak, eskola arruntetan ez bezala, guztiz ezberdinak izango dira eskola inklusibo batean. Era berean, irakasleak bere inguruan izango dituen ikasleen errealitateak oso ezberdinak izango dira eta hori guztia ondo kudeatzen jakin beharko du. Gainera, Abellaneda-k (2015) dioen moduan, hezkuntza ez da soilik kanpotik datorren ikasleari zuzenduta egongo, eskola komunitateko pertsona orori zuzendurik egongo da, baita familia eta inguruari ere.

Honekin jarraituz, Garciak, Garciak, Morenok eta Herrero (2015) diote kulturarteko hezkuntzak hainbat ikuspegi zientifiko eta hezigarri lantzen dituela:

- *Baloreetan oinarritutako hezkuntza*: Xede nagusia norberaren autonomia morala garatzea izango da. Horretarako, eztabaidak edota asanblada txikiak praktikan jarriko dira.
- *Ikuspegi sozio afektiboa*: Helburua bazterketa, esklusioa, etabar. ulertzea izango da. Hau enpatia lantzen lortuko da eta horretarako baliagarriak izango dira rolen bidezko jolasak, dinamikak, etabar. Azken finean, honekin lortu nahi dena, ikasleek benetako egoerak bizitzea izango da norberaren eta beste ikasleen egoera hobeto ulertzea.
- *Ikuspegi kooperatiboa*: Talde lanak egiteaz gain, funtsezkoa da ikasgelan giro sozio afektibo egoki bat sortzea. Horretarako, baliagarriak dira dinamikak taldearen garrantzia, taldeko lana edo talde jolasak sustatzeko.
- *Orientatze eraldatzailea*: Gizartearen, ikasleen edo familien ulermen kritikoa sustatzean datza. Egoera sozio ekonomikoa, politikoa edota kulturala ulertu behar dute ondoren beraien bizitzak garatzeko eta hauek eraldatzeko. Hau lantzeko erabili daitekeen estrategia gizakien eskubideen aurka dauden egoerei buruz hitz egiten duten testuen irakurketak egitea izan daitezke.
- *Hezkuntza inklusiboa*: Eskola hauetan ikasle guztiak onartuak dira, hau da, ikasleen ezaugarri sozial, pertsonal edo kulturalak ez dira kontuan hartzen.

Arestian aipatu moduan, eskola inklusibo bat egiterako garaian, errealitate ezberdineko ikasleak egongo dira eta hori guztia kontuan hartu beharko dugu eskolaren planifikazioa egiterako garaian. Gainera Abellanedaren (2015) hitzak jarraituz moldaketa asko egin beharko dira, adibidez, kurrikulumak ikasgelaren egoera irudikatu beharko du eta gainera ikasleen ikaskuntza erritmo ezberdinetara, aurre ezagutzetara eta kulturara egokitu beharko da. Hau da, kurrikuluma ikasle guztiei zuzendua egon behar da, inongo bazterketarik egin gabe. Honekin jarraituz, Lopezek (2011) dio ikasteko materialak ere moldatu egingo direla, hau da, ikasleek landuko dituzten materialak berriak izan behar direla eta hauen duten funtzioa desberdina izango dela. Hau da, ez dira soilik informazioa ematen duten ikasteko materialak, orain, material hauek hausnartzeko jarduerak bihurtuko dira, garapen kognitiboa landuz.

Moldaketa hauek alde batera utziz, kulturarteko hezkuntza landu ahal izateko, gizarteak dituen hainbat aurreiritzi alde batera utzi beharko dira aurrera jarraitu nahi bada. Hau lantzeko hainbat estrategia daude Abellandeda-k (2015) esan bezala. Horien artean, berdinen arteko interakzioa sustatzea jolasen bitartez, akordioak egiteko aurkeztutako arazoei irtenbideak emateko; jarreraren autoestimua eta autozuzenketaren lanketa; eztabaidak sortu ikasleak barne gatazkei erantzunak eman ahal izateko.

Azkenik, gizarte honetan pertsona orok bere ideologia duenez, ohikoa da noizbehinka gizabanakoen artean liskarrak egotea hainbat pentsatzeko modu direla eta. Horregatik, bai ikasleak zein irakasleak egoera horiek kudeatzen jakin behar dituzte beti ere gainontzekoen ideiak errespetatuz eta hauek zapaldu gabe.

## 2.5. INKLUSIO EREDUAK ESKOLAN

Infanteren (2010) esanetan, Hezkuntza inklusiboaren kontzeptua eta honen praktika eskoletan 80. hamarkadako hasieran kokatzen da Estatu Batuetan eta Europan. Hasiera batean, ekimen hau ez gaitasuna zuten ikasle horientzat soilik zuzendurik zegoen. Aldiz, azken hamarkadetan, ikuspegi hori aldatu egin da eta erronka berri bat aurkezten da, hots, praktika inklusibo horiek ikasle guztientzat egitea.

Bestalde, historian zehar, Muñozen (2001) eskema jarraituz, eskolan integrazio eredu ezberdinak ikusiko ditugu, hala nola, eredu asimilazionista, eredu orekatzailea, eredu segregazionista eta eredu integratzailea.

### **2.5.1. Eredu asimilazionista**

Eredu asimilazionistan, Muñozek (2011) dioten bezala ohikoa da murgiltze programak erabiltzea, hau da, erabiltzen den estrategia lengoaiaren eta kulturaren murgilketan datza. Horretarako, alde batetik, harrerako klaseak ematen dira, hizkuntzaren lanketa handia eginez, modu intentsibo batean. Behin ikaslea hizkuntza hori ulertzeko gai denean gainontzeko ikaskideekin elkartzen da ikasgelan. Bestetik, ikasgelan laguntzako irakasle bat egoten da hizkuntza berria barneratzen laguntzen joateko.

Eredu honetan, Retortillo, Ovejero, Cruz, Lucas eta Ariasen (2006) arabera, emigrantea den pertsona gizarte berrira egokitu nahi da. Bertan, emigranteari adopziozko gizarte berri horretako kultura, ohiturak, komunitateko bizitzeko moduak, etabar. barneratzea eskatzen diote eta bere jatorrizko elementu horiek guztiak alde batera uztea. Behin hau eginda, adopziozko gizarteak beraien komunitateko kide moduan hartuko du ikaslea.

Honekin jarraituz, Moliner eta Molinerrek (2010) diote asimilazioak ikasle guztiak onartzen dituela baina ez duela talde minoritarioen dibertsitatea baimentzen eta hauek baztertzen saiatzen da. Eredu honetan, kultura menderatzaileak, gainontzeko talde etnikoak xurgatzen ditu eta ondorioz nagusi bihurtzen da. Azken finean, ikuspegi honetatik, dibertsitatearen faktorea, kultura menderatzailearentzat arazo eta mehatxu moduan ulertzen da.

### **2.5.2. Eredu orekatzailea (marginatzailea)**

Inklusio eredu honetan Muñozen (2011) aburuz uste da gutxiengo etnia jatorriko ikasleak, ez direla testuinguru egoki batean bizi beharrezkoak diren gaitasun kognitibo eta kulturalak erdiesteko, ondoren eskolan modu egokian funtzionatzeko. Hori dela eta, urritasun soziokultural hori berreskuratzeko, programa orekatzaileak martxan jartzen dira. Gainera, ikuspegi honek gutxieneko ikaslea kulturalki ezgaia etiketatzen du.

### **2.5.3. Eredu segregatzailea (multikulturala)**

Aurreko ereduak desagertzearen ondorioz sortu zen eredu multikulturala. Muñozen (2011) arabera eredu honek gainontzeko ereduekin duen ezberdintasun nagusia, ikaslearen identitate kulturala eta linguistikoa mantentzen dela da. Hemen, beste ereduetan ez bezala, alde batera uzten da jatorrizko hizkuntza eta kultura ordezkatzeko behar hori eta ikasleak arazorik gabe mantendu dezake bere jatorrizko identitatea.

Retortillok, Ovejerok, Cruz, Lucas eta Ariasek (2006) diote, inklusio eredu hau filosofia antiasimilazionista izateaz gain, bere funtsezko oinarriak talde kulturaren baloreak eta identitatea direla. Eredu honek hainbat kritika ere baditu, alde batetik, segregazioak gizartearen segmentazioa eragiten duela geto ezberdinak sortuz eta bestetik komunitate batetik bestera desberdintasun ekonomiko handiak sortzen dituela.

Eredu honetara desberdintasun genetikoko programak gehitu daitezke. Muñozek (2011) dio, gutxieneko etnia taldeek beraien ezaugarri genetikoak direla eta, eskolan jasotzen dituzten emaitzak eskasagoak direla; horregatik, eredu honetan, ikasleak beraien maila edota adimen-koizientearen arabera taldekatzen dituzte. Ondorioz, talde bakoitzari programa bat egokitzen zaio eta programa horiek prestigio ezberdineko ikasketak egitera bideratzen dituzte ikasleak.

### **2.5.4. Eredu interkulturala**

Eredu berritzaile hau hezkuntza komunitateko partaide guztiei zuzendurik dago eta ez du segregaziorantz jotzen. Aldiz, inklusio eredu honek, eskolen berrantolaketa eta kurrikulumaren egokitzapena ekarriko ditu. Muñozen (2011) hitzak jarraituz, eredu interkultural honek duen baliabiderik nagusiena ikasleengan espiritu kritikoa bat sortzea da, kulturen arteko topaketa sustatuz eta ikasleek aniztasunetik ikasten jakin dezaten inolako bazterketa edota diskriminaziorik egin gabe.

Aguadoren (1999) esanetan, multikultural kontzeptuarekin ulertu daitekeena, kultura ezberdina duten gizarte talde edo pertsonak elkarrekin bizi direla da, hauen

kultura zein den kontuan hartu gabe. Beraz, eredu interkulturalaren xedea Muñozen (2011) ustetan, kultura komun bat sortzea da non talde kultural eta etniko guztien ekarpenak biltzen dituen. Eredu honen ideia, alde batetik gutxieneko kulturak mantentzea eta orekatzea da eta bestetik kultura nagusiaren ekarpen garrantzitsuena gehitzea. Era berean, oinarrizko helburua, elkartasuneko eta ikasleen arteko tolerantziako sentimendu positiboak sorraraztea da. Gainera estereotipoak gutxitzea edota hauek haustea ere eredu honek duen beste xede nagusietako bat da.

Ilido beretik jarraituz, Aguadoren (1999) ustez, eredu honetan dauden programak eta praktikak, biztanleria etniko eta kultural minoritarioen errendimendu akademikoa hobetzeko sorturik daude. Era berean, praktika hauen bitartez, kultura nagusia duten ikasleei beste kultura minoritarioak onartzeko eta ikasteko balioko diete.

## 2.6. EGOERA GAUR EGUNGO ESKOLETAN

Gaur egungo eskola guztietan ohikoa da harrera plan bat ikustea beste herrialde batetik datozen ikasleentzat zuzendua. Eusko Jaurlaritzak Harrera-planak egiteko eskuragarri jartzen die ikastetxeei Harrera-plana egiteko dokumentu orientabide bat, ondoren ikastetxeek beraien Harrera-plan pertsonala egiteko.

Aurretik esan bezala, nahiz eta ikastetxe bakoitzak bere Harrera-Plana eduki, ikastetxeetako Harrera-plan guztiek badituzte hainbat puntu amankomunean (Ortega, 2004):

- Nork eta nola egingo dion familia berriari harrera
- Zer informazio mota emango zaien
- Nork eta nola aditzera emango dion iritsi berriari ikastetxearen funtzionamendua

## 3. HELBURUAK

Gaur egungo eskoletan kultura desberdin asko aurkitu ditzakegu. Lopezek (2011) hau arazo bat izan beharrean, errespetuan, partaidetzan eta bizikidetzan oinarritzen diren hezkuntza bat eraikitzeke aukera baten moduan ikusten du kultura aniztasuna. Era berean, eskolek ikasle guztien beharrei erantzun behar dituztenez, hauek hainbat moldaketa egin beharko dituzte. Beraz, orain arte eskolek eskuartean izan duten erronkarik handienetako baten aurrean gaude.

Esandakoaren harira, ikerketa honen helburua, gaur egungo eskolek, Eusko Jaurlaritzak Harrera-plana egiteko orientabide dokumentua kontuan hartzen duten



aztertzea izango da. Jarraian, eskolen arteko desberdintasunak agerian jarriko ditugu hausnarketa batekin amaitzeko. Gauzak horrela, ikerketak modu orokor batean honako galdera honi erantzuten dio:

“Eskolek betetzen al dute Eusko Jaurlaritzaren Harrera-plana egiteko orientabidea beraien Harrera-plana sortzerako garaian?”

Bestalde, ikerketa honekin beste xede batzuk ere lortu nahi izan dira, adibidez:

- Kulturartekotasuneko hezkuntza bat osatzea hezkuntza komunitateko partaide guztiei zuzendua, ikasle guztien ezberdintasunetik abiatuz.
- Migrantea den ikasleari integratzen laguntzea, kultura guztiak ezagutzuz eta onartuz, hauen arteko gatazkarik sortu gabe, kritikotasuna sustatuz.
- Gaur egun ikastetxeetan dagoen errealitatea zein den ikustea eta honi buruz hausnarketa bat egitea.
- Gaur egungo eskoletan gai hau nola lantzen duten ikustea eta honen alde positiboak eta negatiboak ezagutzea.
- Ikastetxeek atzerriko ikasleekin zer nolako esku hartzea duten ikustea eta beraien artean ematen diren berdintasunak eta desberdintasunak azaltzea.
- Harrera-plana dokumentua modu sakonago batean aztertzea, hau da, bertan aipatzen diren atalak ezagutzea .
- Gizarte guztiarentzat zuzenduta dagoen hezkuntza inklusibo bat aurrera eramateko behar diren estrategiak ezagutzea.
- Ikastetxeetan HIPI-ek egiten duten lana zein den ikustea eta lan egiteko dituzten arazoak ezagutzea.
- Kulturartekotasuna ikasgelan lantzeko jarduera ezberdinak ezagutzea eta ondoren ikasgelan gainontzeko ikasleekin praktikan jartzea, ikasle atzerritarra ahalik eta azkarren ikasgelako partaide sentitu dadin.
- Ikasleek kulturartekotasunari buruz kritikotasunez hausnartzea.

## 4. METODOA

Ikerketa aurrera eramateko, erabilitako metodoa, metodo kualitatiboa izan da. Oinarrizko ikerketa galdera aztertzeko modurik egokiena elkarrizketa tresna aukeratu da. Elkarrizketa hauen bitartez (Ikusi I. eranskina) lortu nahi izan dena eskoletako errealitatera hurbiltzea izan da, HIPI-en lana modu argiago batean ulertzea eta eskolen Harrera-plana al zen neurrian ezagutzea. Diaz, Torruco, Martinez eta Varelaren (2013) hitzetan, elkarrizketaren bitartez, informazio zabalagoa eta zehatzagoa lortzen da eta gainera momentuan zalantzaren bat egonez gero hau argitzeko parada dago, azken finean jasotzen den informazioa erabilgarriagoa da.

Eskola guztiak aztertzea ezinezkoa denez, nire praktikaldiak igaro ditudan bi eskola hartu ditut ikerketa gauzatzeko, hau da, Gasteizko Aranbizkarra Ikastola eta Ordiziako Urdaneta Ikastetxea. Eskola hauek aukeratzearen arrazoi nagusiak bi izan dira, alde batetik bertan egon naizelako Unibertsitate Eskolako *Practicumeko* ikasgaiak gauzaten eta bestetik eskolen testuingurua oso ezberdina delako, hau da, eskola bat hirian kokatzen delako eta bestea aldiz herrian.

### 4.1. Populazioaren datu soziodemografikoak

Ikerketa egiteko aukeratu diren bi eskola hauen testuingurua guztiz ezberdina da, hau da, Aranbizkarra Gasteizen (Araba) kokatzen da, 244. 634 biztanleko hiri batean. Ikastola hau, Gasteizko erdigunean kokaturik dago, Burgos kalean hain zuzen ere. Aranbizkarra Arabako ikastetxeen artean kulturartekotasunean, aniztasunaren trataeran eta eskola inklusiboan erreferentea da. Gaur egun ikastolan, 400 ikasle inguru aurki daitezke eta ikasle hauen jatorria ezberdina da, hala nola, Marokiarrek, Dominikar Errepublikarrek, Kolonbiarrek, Senegaldarrek, Venezuelarrek, Errumaniarrek, Paraguaidarrek, Galiziarrek, Txinatarra, Argeliarrek, Pakistadarrek, Nigeriarrek, Brasildarrek eta Extremadurarrak. Ikasle hauetaz gain, Aranbizkarra ikastolan beste hainbat ikasle daude Euskal Herrian jaiotakoak direnak baina gurasoak aldiz atzeritarrak direnak.

Bestalde, Urdaneta Ikastetxea Ordizian kokatzen da, Gipuzkoako Goierri eskualdean hain zuzen ere. Ordiziak 10.000 biztanle inguru ditu eta hauen %13,8a etorkinak dira, hots, atzerrian jaiotakoak. Ikasle atzeritar hauen jatorriari erreparatuz gero, ikus daiteke ikasle hauek Nigeriarrek, Errumaniarrek, Marokoarrek eta Pakistandarrek, Madrildarrek, Bartzelonarrek eta Valentziarrek direla. Nahiz eta herriak bi ikastetxe eduki, bata pribatua eta bestea publikoa, etorkin gehienak bigarrenera joaten dira. Ondorioz, Urdaneta Ikastetxe publikoa kulturalki oso anitza da.

## **4.2. Prozedimendua**

Elkarrizketa hauek eskoletan egin behar izan zirenez, lehenik eta behin, bertako ordezkariekin hitz egin nuen. Hauei nire egoera zein den kontatu nien, hots, irakasle eskolako azkeneko urteko ikasketak burutzen nebilela eta beraz, Gradu Amaierako Lana burutu behar nuela eta horretarako baliagarriak izango zitzaizkidala hainbat elkarrizketa burutzea eskoletako irakasle batzuei, HIPI-ei hain zuzen ere.

Behin eskoletako baimena jasota, HIPI-ekin hitzorduak finkatu nituen. Aipatu beharra da Aranbizkarra Ikastolako HIPI-arekin ezin izan nuela aurrez aurre egon hainbat arazo direla medio; hori dela eta, HIPI-ak elkarrizketa (Ikusi III. eranskina) gmaileen bidez bidaltzeko eskatu zidan eta ahal zuenean bidaliko zidala esan zidan. Aldiz, Urdaneta Ikastetxeko HIPI-arekin aurrez aurre egoteko parada izan nuen praktikaldia ikastetxe horretan egin baintuen. Elkarrizketa hau (Ikusi II. eranskina) HIPI-aren gelan egin nuen eta hasiera batean biok uste genuena baina luzeago izan zen elkarrizketa. Irakasleak informazio eta dokumentu ezberdin ugari erakutsi zizkidan, guztiak interesgarriak irakasle hauen lana hobeto ulertu ahal izateko. Nire burua elkarrizketa guztian zehar oso lasai ikusi nuen eta irakasleak inongo arazorik gabe galdera guztiei erantzun zituen ahalik eta informazio handiena ematen modu argienean. Behin galdera guztiak amaitutakoan, irakasleak aitortu zidan galderak hasiera batean uste baina konplexuagoak iruditu zitzaizkiola baina aldi berean oso interesgarriak izan zirela.

## **4.3. Erabilitako teknikak**

### 4.3.1. Elkarrizketa

Elkarrizketak bi irakasle ezberdinei egin nizkien (bi irakasleei galdera berdinarik pasa zitzaizkien). Elkarrizketa osatuko zuten galderak aukeratzeko garaian, kontu handiz aukeratu nituen galdera, izan ere, galdera guztiei bere garrantzia eman nahi nielako eta aldi berean galdera orok informazio nahikoa ematen zidaten ziurtatu nahi nuelako. Bestalde, galdera bakoitzarekin ondorioak ateratzea izan zen nire beste helburuetako bat. Hortaz, elkarrizketa hauek erantzuteko pertsona aproposenak eskoletan dauden HIPI-ak iruditu zitzaizkidan.

Ildo beretik jarraituz, behin elkarrizketa egiteko baimena lortuta, elkarrizketa prestatzen hasi nintzen. Galderak gauzatzeko garaian, oinarri bezala Eusko Jaurlaritzaren Harrera-plana egiteko orientabidea hartu nuen, hau da, galdera guztiek zerikusia zuten Harrera-planarekin. Horretarako, galderak hautatzeko garaian dokumentua ondo aztertu behar izan nuen, garrantzia handieneko gaiak aukeratzuz.

Elkarrizketa prestatzerako unean, hasiera batean hainbat galdera sorta prestatu nituen. Aldiz, Herrera-plana egiteko orientabide dokumentua berriro irakurrita, konturatu nintzen hainbat galderek ez zutela garrantzia handirik eta galdera horietatik eskuratuko nuen informazio kopurua oso eskasa izango litzatekela, hori dela eta, galdera batzuk baztertu egin nituen. Beraz, esan daiteke galderak sortzeko une hori izan zela momenturik konplexuena. Galderak oso ondo aukeratu behar izan nituen, izan ere, galdera horietatik jasotzen nituen erantzunetatik ondorioak atera behar izango nituelako. Aldi berean, eskolaren pribatutasuna ere kontuan hartu behar izan dut, hots, apika hainbat datu edota informazio ezin izango zituztela esan.

#### 4.3.2. Metodo konparatiboa

Arestian aipatu moduan, ikerketa aurrera eramateko erabiliko den estrategia edo baliabide nagusia elkarrizketa izan da. Honetaz gain, egindako bi elkarrizketak baliatuz, hauen arteko konparazioak egiteko aukera izan da. Tanon de Toscanoren (2011) hitzak jarraituz, metodo konparatiboak genero berdinen artean dauden berdintasunak eta ezberdintasunak deskribatzen ditu. Metodo konparatiboarekin lortu nahi dena, bi fenomeno elkarren ondoan jartzea da, beraien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak zeintzuk diren ikusteko eta amaieran ondorioak eta hobetzeko proposamenak azaltzeko. Azken finean, metodo konparatiboari modu argiago batean ikusi ahal izango ditugu emaitzak eta erraztasun handiagoz atera ahal izango ditugu ondorioak.

## 5. EMAITZAK

Behin galdera guztiak aukeraturik eta elkarrizketa eginik, jasotako informazio guztia antolatu dut. Elkarrizketa hamaika galderek osatzen dute, kategoria ezberdinak osatuz. Emaitzak azaltzerako garaian jarraituko den prozesua ere berdina izango da, hau da, blokeen arabera erantzunak azaltzen joango gara eta eskolen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak azaltzen hasiko gara. Hasteko, lehenengo blokean pasa den urteko (2017-2018 ikasturteko) ikasle kanpotarren datuak eta hauen jatorria zein den galdetzen da. Aldi berean, faktorerik garrantzitsuena zein den galdetzen da.

Elkarrizketetan jasotako emaitzak interpretatzen hasteko, argi dago, azken urteetan bai Aranbizkarra Ikastolan zein Urdaneta Ikastetxean atzerritarren kopuruak gora egiteko joera izan duela. Hala eta guztiz ere, ikus daiteke Urdaneta Ikastetxean 2017-2018 ikasturtean etorritako ikasle atzerritarren kopurua (60 ikasle) Aranbizkarra Ikastolako bikoitza dela (30 ikasle).

Ildo beretik jarraituz, ikasle atzerritar hauen jatorria aztertuz, ikusi daiteke Aranbizkarra Ikastola globalagoa dela, alegia, herrialde gehiagoko ikasleak daudela Urdaneta Ikastetxean baino. Hala eta guztiz ere, bi ikastetxeetan badaude errepikatzen diren herrialdeak, hala nola, Nigeria, Errumania, Maroko edota Pakistan.

Behin atzerritaren kopurua eta hauen jatorria zein den ikusirik, garrantzitsua da jakitea HIPI-en arabera zein den atzerritar hauen arrazoa beraien herrialdetik joateko eta gure herrialdera etortzeko. Aranbizkarra Ikastolako HIPI-ak nahiko argi uzten du bere ustez arrazoi nagusia ikasleen familien egoera (ekonomikoa, soziala, kulturala, etabar) dela faktorerik garrantzitsuena. Urdaneta Ikastetxean hainbat gauza interesgarri esaten dira honen inguruan. Lehenik eta behin, faktore garrantzitsuena “*efecto llamada*” dela diote. Honek esan nahi duena zera da, herrialde bateko familia bat etortzen dela herrira, ondoren beste familia bat eta ondoren beste bat. Azkenenean, herrialde bereko hainbeste familia daudenez, beraien artean komunitate bat sortzen bukatzen dute. Era berean, Urdaneta Ikastetxean uste da Ordizia “pasoko” leku bat dela familia hauentzat, hots, bertan 3 edo 4 urte igarotzen dituzte eta ondoren beste leku batera joaten dira. Azkenik, Urdaneta Ikastetxeko HIPI-ari harrigarria iruditzen zaio hainbeste familia etortzea gure herrialdera kontuan izanik familia hauek lan aldetik ez dituztela aukera handirik.

Behin lehenengo galdera bloke hau amaiturik eta emaitzak ikusi eta azterturik, bigarren blokean Harrera-planarekin zerikusia duten galderak aurkitzen dira. Bertan, Harrera-plana egiterako garaian dauden parte hartzaileak, familiarekin duten lehen kontaktua edo harremanak eta horrelako gaiak jorratzen dira.

Harrera-planarekin zerikusia duten galderak aztertzen hasteko lehenik eta behin ikus daiteke Urdaneta Ikastetxean kontuan hartzen dutela Harrera-plana egiteko Eusko Jaurlaritzaren dokumentu orientabidea nahiz eta zenbait moldaketa egin ondoren beraien Harrera-plana sortzerako garaian. Era berean, Urdaneta Ikastetxean Harrera-plan ezberdinak dituzte eskuragarri eta ikaslearen errealitatearen arabera dokumentu bat edo beste bat erabiltzen dute. Aipatu behar da, Aranbizkarra Ikastolan galdera honi ematen dioten erantzunak ez duela zerikusirik galderarekin, beraz, ezin daitezke emandako erantzunak interpretatu.

Hurrengo galdera aztertuz, hau da, Harrera-plana egiterako garaian zeintzuk diren parte-hartzaileak, bi eskoletan hainbat berdintasun ikus daitezke. Bai Aranbizkarra Ikastolan zein Urdaneta Ikastetxean, zuzendariak, ikasketa buruak, idazkariak eta HIPI-ak parte hartzen dute Harrera-plana sortzerako unean. Berdintasun hauek alde batera utziz, azpimarragarria iruditzen zait Urdaneta Ikastetxean Kulturartekotasuneko figura

egotea eta honek Harrera-plana egiterako unean parte hartzea. Ostera, Aranbizkarra Ikastolako partaideak aztertuz, ez da tutorearen figura ageri.

Harrera-planarekin jarraituz, ikasle berri bat etortzen denean bai Urdaneta Ikastetxera zein Aranbizkarra Ikastolara, bi eskolek estamentuen arteko informazio-trukaketa egiten saiatzen dira. Hau da, ikasle berriaren aurreko eskolarekin kontaktuan jartzen dira ikaslearen informazioa jakiteko eta honen erreferentzia minimo batzuk izateko. Bestalde, familiekin duten lehen kontaktua bai Urdaneta Ikastetxean zein Aranbizkarra Ikastolan nahikoa berdina dela esan daiteke. Bi eskoletan dagoen ezberdintasun bakarra, familiekin lehenengo kontaktua izaten duen pertsona da. Batetik, Urdaneta Ikastetxean HIPI-a da familiarekin lehen kontaktua edukitzearen arduraduna eta Aranbizkarra Ikastolan bestetik Zuzendaria da. Desberdintasun hau alde batera utzita, jarraitzen den prozesua nahiko berdina da bi eskoletan, hots, elkarrizketa erabiltzen dute baliabide moduan ikasleari eta familiari buruz informazio gehiago erdiesteko.

Behin lehen kontaktua alde batera utziz, ikasleei egiten zaizkien harrerei buruz galdetzen zaie HIPI-ei. Harrerari dagokionez, bi eskoletan ematen den prozesua berdina dela esan dezakegu, hau da, progresio bat mantentzen dute ikasle berria gelara sartu aurretik. Honekin jarraituz, aipatu ikasle atzerritar hauen integrazioa bultzatzeko Aranbizkarra Ikastolan martxan jartzen dituztela hainbat talde dinamika ezberdin, hala nola, talde elkarreragileak, tertulia dialogikoak, irakur laguna, bikoteka irakurtzen, etabar.

Bestalde, Urdaneta Ikastetxean jasotako erantzunak aztertuz, ikus daiteke enbaxadorearen figura dutela, hau da, ikasle atzerritarrari laguntzaile (gelakide bat) bat jartzen diote hau ikastetxean integratzeko eta pixkanaka-pixkanaka gelako dinamikan sartzen joateko.

Harrera-planarekin jarraituz, bi eskoletan, bertako langileei Harrera-planaren berri ematen zaie. Urdaneta Ikastetxean, Zuzendaritza taldeak eskolako langile ezberdinei ematen die informazioa, esate baterako, jangelako arduradunei, zaintzaileari, etabar. Halaber, ziklo bileretan, ikasle berriari buruzko informazioa ematen da gainontzeko irakasleek informazio minimo bat eduki dezaten. Aranbizkarra Ikastolan ematen den prozesua berdina da, hau da, eskolako langileen artean koordinazio minimo bat egoten da eta hemen ere, ikaslea jangelan geldituz gero bertako arduradunei informazio hori helarazten zaie.

Amaitzeko, elkarrizketako azkeneko blokean, 2017-2018 ikasturtean, ikasle berri hauen egokitzea nolakoa izan den galdetzen da eta era berean, gainontzeko ikasleen erantzuna nolakoa izan den.

Lehenik eta behin, bi eskoletan pasa den ikasturtean eman zen adaptazioa positiboa izan zela ikus daiteke. Urdaneta Ikastetxean, nahiz eta adaptazioa positiboa izan, baliabide falta nabaritzen dute lan egiterako garaian. Era berean, Ikastetxe honetako HIPI-ak dio ikasle hauek ez daudela hemengo bizimodura ohituta eta hori dela eta, egokitzapen bat behar dutela aitortzen du. Horrez gain, irakasleek prestakuntza berezi bat behar dutela uste du ikasle-irakasleen artean talkarik ez emateko. Aranbizkarran bestalde, ikasleak nahiko ondo egokitzen direla iruditzen zaio bertako HIPI-ari eta arazoren bat egonez gero, gehienetan familiaren egoera edota ikasteko zailtasunengatik direla uste du.

Azkenik, nahiz eta Harrera-planarekin zerikusirik ez izan, HIPI baten lana nolakoa den hobeto ulertzeko eta merezi duten garrantzia emateko, irakasleari bere lanbideko gauza positibo eta negatibo bana aipatzeko eskatzen da. Alderdi positibo moduan beste herrialde bateko ohiturak eta kulturak ezagutzen direla eta HIPI-ek egiten duten lana berehala nabari dela esaten dute. Alderdi negatiboan aldiz, egiten duten lana nahiko errepikakorra dela, hots, beti arlo eta maila berdinak irakatsi behar dituztela eta lan egiteko baliabide falta handia somatzen dutela.

## 6. ONDORIOAK

Lanaren atal honetan, ikertutako emaitzen inguruan hausnarketa bat egingo da eta, era berean, Gradu Amaierako Lan honekin egin dizkidan ekarpen ezberdinak zeintzuk izan diren eta honen balorazioa zein izan den esango da.

Gauzatutako lan honekin, eskolak gizartearen islada direnez, argi geratu da gaur egun gure eskoletan kultura aniztasun handia dagoela eta pertsona horiei guztiei erantzun egoki bat ematea beharrezkoa dela ikasle atzerritar hauek ikastetxeko partaide sentitu daitezen. Inklusio hau gertatzeko, nahitaezkoa izango da kultura guztiei merezi duten garrantzia ematea, inongo bazterketarik eman gabe, kultura guztiak baloratuz eta elkarlanean ibiliz. Azken finean, lortu beharreko xedea, benetako kulturartekotasun bat lantzea da eta hau guztia lortu ahal izateko nahitaezkoa izango da bizikidetza interkultural bat edukitzea gure gizartean.

Ildo beretik jarraituz, etorkizuneko irakasle izango garenok hezkuntza interkultural bat lantzea izango da helburua, denena eta denontzat den hezkuntza bat. Hezkuntza honek, ikasle guztien errealitateak kontuan hartuko ditu eta bere aurrean izango duen aniztasun hori ez du arazo bezala ikusiko, elkarren artean ikasteko parada bat baizik, kultura bakoitzaren ezberdintasunetik abiatuz. Horregatik, gure kulturara

egokitzen laguntzea funtsezkoa izango da ikasle berriaren adaptazioa azkarragoa izan dadin eta gure komunitateko partaide sentitu daitezen gure herrialdera etortzen diren ikasle horiek guztiak. Hau lortu ahal izateko, nahitaezkoa izango da orain arte dauden metodologiei buruz hausnarketa bat egitea eta eskakizun berrietara egokitzea.

Eusko Jaurlaritzaren Harrera-plana egiteko dokumentua soilik orientabidea izan arren, gomendagarria izan daiteke eskolek dokumentu hori aintzat hartzea eta ondoren beraien ikastetxeko dokumentazioan ideia horiek txertatzea. Gainera, ikastetxeak Harrera-plan bat baina gehiago edukitzea ere komenigarria iruditzen zait, ikasle guztien errealitateak ezberdinak baitira eta apika hasiera batean eman beharreko esku-hartzea desberdina delako. Beraz, lan honetan aztertu nahi izan dena hori izan da, hots, ea eskolek eskuragarri dagoen dokumentu orientabide hori jarraitzen duten aztertzea. Horretarako funtsezkoak izan dira Aranbizkarra Ikastolako eta Urdaneta Ikastetxeko HIPI-ei eginiko elkarrizketa ezberdinak. Bi eskoletan egin diren elkarrizketa hauei esker konparazioak egiteko aukera izan dugu, beraien arteko berdintasunak eta ezberdintasunak ikusiz. Azken finean, ikerketaren zehar ikusi da nahiz eta eskola hauek Harrera-plana egiterako edo aurrera eramaterako garaian ezberdintasun batzuk izan beraien artean, helburua berdina dela, hau da, ikasle atzerritar hauen inklusioa gauzatzea.

Honekin jarraituz, nahiz eta bi eskolek antzeko moduan jokatu Harrera-planari dagokionez, interesgarriak iruditu zaizkit Urdaneta Ikastetxean jasotako erantzun batzuk eta horiek nabarmendu nahiko nituzke. Lehenik eta behin, aipatu modu orokor batean emaitzetan ikusi izan dugun moduan, Urdaneta Ikastetxeak erreferentzia asko dituela Eusko Jaurlaritzaren Harrera-plana egiteko dokumentu orientabidetik, esate baterako, enbaxadorearen figura, Harrera-planari buruzko informazioa ikastetxeko gainerako langileei helaraztea, gizarte-zerbitzuei buruzko informazioa ematea, Harrera-plan bat baina gehiago edukitzea ikaslearen arabera, etabar. Gainera, kulturartekotasuneko figura edukitzea ikasle atzerritarak integratzen laguntzeko ere guztiz azpimarragarria iruditzen zait.

Aipatutako honekin ez da esan nahi Aranbizkarra Ikastolak ez duela trataera egokia Harrera-planari dagokionez. Emaitzetan ikusi den moduan, Aranbizkarra Ikastolak ere egiten dizkio Eusko Jaurlaritzaren dokumentuari erreferentziak baina Urdaneta Ikastetxearekin alderatuz, bigarren hau jantziago dagoela iruditu zait. Hala eta guztiz ere, Aranbizkarra Ikastolan martxan jarrita dituzten proiektuak, hala nola, talde elkarreragileak, tertulia dialogikoak, irakur laguna, bikoteka irakurtzen, etabar. ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko guztiz interesgarriak iruditu zaizkit.



Ondorioekin jarraituz, lan honekin konturatu naiz eskoletara funtsezkoak direla berrikuntzak, izan ere, hezkuntza sistema une oro berritzen egon behar baita, hau da, gizartearen erritmora joan behar da nahiz eta hau lan konplexua izan. Gaur egun, hezkuntza inklusibo bat eraikitzea bada gure xedea, ikasle guztiak kontuan hartzen dituen, inongo bazterketarik egin gabe eta ikasle guztiei erantzun bat ematen dion eskola bat eraikitzea bada, aldaketak egitea nahitaezkoa da. Horretarako, alderdi guztien inplikazioa beharrezkoa da hau errealitate bihurtu dadin.

Lan honen zehar kulturartekotasunaren gaur egungo errealitatea gure gizartea ikertu nahi izan da eta horretarako, hainbat esparru aztertu dira. Gaiaren konplexutasuna kontutan izanda gehiago jorratu ahal diren edota hainbat hobekuntza eduki ditzakela iruditzen zait.

Kulturartekotasunaren inguruan informazio ugari dagoenez, informazioa hautatzeko orduan zailtasunak izan dira. Hori dela eta, funtsezkoa izan da idazle ezberdinen ikuspuntuak aztertzea eta gaiarekin zerikusi zuten ikerketak irakurtzea. Era berean, informazioa antolatzeke eta hau esaterako garaian ere sintesi lana egin behar izan da, informazio garrantzitsuena kontuan hartuz eta bigarren mailako informazioa baztertuz. Gainera, hautatutako informazioen artean lotura bat aurkitzen saiatu da lanari zentzua emateko.

Informazio hori hautatzearen arrazoia ondoren ikerketan zetorren informazioa modu zabalago batean ulertzea izan da. Hasiera batean eman den informazioarekin, kulturartekotasunarekin loturiko kontzeptuak eta honen egoera argitzea izan da helburua, ondoren ikerketa modu argiago batean ulertu ahal izateko. Apika, hurrengo ikerketa baterako informazioa ematerako garaian, interesgarria izango litzateke Euskal Autonomia Erkidegoan biztanleria atzeritarren eboluzioa aztertzea eta honen arrazoiak ikustea ikerketan egindako datuei lotura eta zentzu handiagoa emateko.

Beste alde batetik, ikerketan erabili den laginaren errepresentagarritasunaren inguruan esan beharra dago ikertu den lagina oso txikia izan dela, soilik bi ikastetxe aztertu direlako eta eskola batetik bestera aldaketa asko eman daitezkeelako, bai ikastetxeak gaia aurrera eramaterako garaian edota ikasleen errealitatea zein den ikusteko garaian. Horregatik, interesgarria izango litzateke, etorkizun batean aurrera eramango diren ikerketetan sinesgarritasun gehiago izateko eta errealitatea modu zehatzago batean irudikatzeke, ikastetxeek dituzten atzeritar kopuruen datuak eta hauen jatorria zein den eskuragarri jartzea. Horrela, datu gehiago lortzeko aukera izango genuketako eta hortaz, ondorio gehiago ateratzeko aukera zabalduko litzatekelako.

Azkenik, lan honek pertsonalki eginiko ekarpenei dagokienez, aipatu beharra daukat nahiz eta hasiera batean kosta, amaieran oso lan aberasgarria iruditu zaidala. Aipatu moduan, hasiera batean lanarekin hastea kosta egin zitzaidan ez nekielako oso ondo nondik joan baina behin bidea argituta lanarekin gozatu dudanaren sentsazioa daukat. Orobat, lan honi esker, kulturartekotasunarekin loturiko termino ezberdinak ikasteko aukera ere izan dut.

Era berean, sarritan, kulturartekotasuna oztopo moduan ikusten nuen ez baintuen ezagutzen hau lantzeko moduak. Orain, lan honi esker, gure geletan daukagun kultur aniztasun hori, ikasteko aukera polit baten moduan ulertzen dut, guk ikasle atzerritarrengandik eta ikasle atzerritar horiek guregandik. Honekin jarraituz, orain arte guztiz ezezaguna eta garrantzitsua den dokumentu bat, hau da, Harrera-plana, barnetik ezagutzeko parada ere izan dut. Laburbilduz, Gradu Amaierako Lan honek, ekarpen baliagarri asko egin dizkidala aitortu dezaket eta ekarpen hauek etorkizuneko irakasle moduan guztiz erabilgarriak izango direlaren sentsazioa daukat.

## 7. HOBEEKUNTZA PROPOSAMENAK

Lehenik eta behin, aurrera eramandako ikerketa honen emaitzetan oinarrituz, esan daiteke oso aberasgarria izango litzatekela ikasle atzerritar hauekin hasiera batean ikastetxean denbora gehien ematen duten irakasleei, hots, HIPI-ei baliabide gehiago eskuragarri jartzea, izan ere, emaitzetan ikusi bezala, irakasle hauek baliabide falta somatzen dutela aitortzen baitute. Honen ildora, gure helburua hezkuntza inklusibo bat sortzea bada eta ikasle hauen beharrei modu eraginkorrean erantzun nahi bada, funtsezkoa izango da lan egiteko baliabide egokiak ematea. Hori egin ezean, nekez lortuko baita ikasle guztien errealitatei erantzutea.

Azken finean, Hezkuntza inklusiboa ikasleen arteko harremanak lantzeko garrantzitsua dela uste dut, honek ez baitu inolako gizarte bazterketarik egiten. Era berean, ikasleen harremanak sendotzeko eta ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko, interesgarriak iruditzen zaizkit ikastetxeek beraien urteko programazioan hainbat proiektu ezberdin martxan jartzea. Gainera, proiektu hauetan familien inplikazioa egotea ere aberasgarria izango litzateke ekintza ezberdinetan parte hartuz. Kulturartekotasuna lantzeko proiektu hauekin ikasle atzerritarra ikastetxeko komunitateko partaide sentitzea izango litzateke helburu nagusia eta aldi berean ikasle honen familia zein jatorrizko herrialdeko ohitura ezberdinak zeintzuk diren ezagutzea.

Gaur egun gure gizartean dagoen aniztasun kulturala ikastetxeetan ere ikusi dezakegu. Azken hamarkadan, ikasle atzerritarren kopuruak gora egin du eta hezkuntza sistema ikasle guztiei erantzun bat ematen saiatzen ari da. Bestalde, hezkuntza sistema ez doa gizartearen erritmora eta ondorioz hartzen diren neurri ezberdinak ez dira nahikoak ikastetxeetan dagoen kultur aniztasunari erantzun egoki bat emateko. Gainera, alderdi teorikoan ikusi dugun moduan, irakasle batzuk gabeziak dituzte kulturartekotasunaren formakuntzan eta ondorioz ez dakite honi nola aurre egin. Gauzak horrela, gabezi hauek ikusita, ikasle atzerritar eta honen familiaren inklusioa errazteko eta gainontzeko ikasleekin kulturartekotasuna lantzeko, gaur egun eskoletan aurrera eramateko unitate didaktiko bat prestatzea bururatu zait.


Unitate didaktiko hau soilik lau jardueretan oinarritzen da beraz, hau martxan jartzeko interesgarria izango litzateke jarduera guztiak egun berdinean ez egitea. Era berean, lau jarduera izanik eta azkeneko jarduera “Gabonetako gutuna” dela kontuan hartuz, aproposa iruditzen zait proiektu hau azaroko azken hastean martxan jartzea. Horrela, aste bakoitzean jarduera bat egingo da eta azkeneko astean “gabonetako gutuna” prestatzeko aukera izango dute ikasleek.

Honekin jarraituz, hainbat jarduera aurrera eramaterako garaian, hala nola, sukaldaritza tailerlean eta ipuin kontaketan, familien inplikazioa ere eskatuko da. Ikasleari bere familiako kide batekin etortzea eskatuko zaio (ez du zertan aita edo ama izan beharrik). Azken finean, familiak ere eskola komunitatearen parte sentitzea hezkuntza inklusiboaren beste helburuetako bat baita.

Laburbilduz, unitate didaktiko honekin lortu nahi izan dena atzerritik datozen ikasle eta honen familiei laguntza bat ematea izan da. Nahiz eta soilik lau jarduera labur izan, ikasgeletan aurrera eramateko interesgarriak izan daitezkeela iruditzen zaizkit. Bestalde, jarduera hauek modu soltean ere egin daitezke, hau da, ez dira zertan lau astetan egin beharrik. Gainera, “Ongi etorri gure eskolara” jarduera ikasle berri bat etortzen den unean egin daiteke eta “gabonetako gutuna” gabonak gerturatzen ari direnean.



<p><b>Ipuin kontaketa</b></p>	<p>Jarduera hau aurrera eramateko familien parte hartzea eskatuko da (ez du zertan ama edo aita izan beharrik. Amona, aitona, anai-arrebak, etab. izan daitezke). Jarduera honen zeregina, ikasleek liburu labur bat aukeratzea izango da beraien jatorrizko hizkuntzan. Behin liburua aukeratuta, ikasle bere familiako kidearekin etorriko da eta honek liburua irakurriko die gainontzeko ikasleei.</p>		<p>Jarduera honen helburua ikasleak ohartaraztea umeentzako liburuak ez daudela soilik beraien jatorrizko hizkuntzan ikustea izango da. Era berean, ikasleek beste hizkuntza batzuk ezagutzeko aukera ere izango dute nahiz eta seguraski hizkuntza hori ez ulertu.</p>	<p>Liburuak</p>	<p>Talde osoa</p>
<p><b>Sukaldaritza tailerra</b></p>	<p>Jarduera hau egiteko aurrekoan bezala familiaren parte hartzea eskatuko da (ez du zertan ama edo aita izan beharrik. Amona, aitona, anai-arrebak, etab. izan daitezke). Jarduera</p>		<p>Jarduera honen xede nagusia beste herrialde bateko janari ospetsuak ezagutzea eta probatzea izango da.</p>	<p>Sukaldatzeko beharrezkoak diren tresnak (goilareak, sardeska, ontzi ezberdinak, etab.)</p>	<p>Ikasle bakoitza bere familiako kidearekin</p>

	<p>honetan, ikasleek bere familiako kidearen laguntzaz, beraien herrialdeko janari ospetsu bat prestatuko dute eta ondoren gainontzeko gelakideek hauek dastatzeko aukera ere izango dute.</p>				
<p><b>Gabonetako gutuna</b></p>	<p>Gabonetan ere kulturartekotasuna lantzeko ekintza ezberdinak egin daitezke. eskolak etxeetara gutun bat bidaltzea izango da gabonetako mezu bat bidaltzen. Mezu hori hizkuntza ezberdinetan idatzita egongo da. Horretarako familien hizkuntza zein den ikusiko da eta horren arabera mezua idatziko</p>	 <p>EuskalKultura.com</p>	<p>Ikasleek hizkuntza ezberdinetan hitz batzuk idazten jakitea eta eskola komunitateko familiei gabonetako gutuna idaztea</p>	<p>Kartulina</p>	<p>Ikasle bakoitzak bere eskutitza egingo du bakarka</p>

## 8. ERREFERENTZIA BIBLIOGRAFIKOAK

Abellaneda, M. (2015). Diversidad cultural y estrategias de actuación en el aula. Almería: Universidad de Almería.

Aguado, M. T. (1999). La educación intercultural: concepto, paradigmas, realizaciones. *Lectura de la pedagogía diferencial*, 89-104.

Aguado, Besalú, Jordán, Essomba, Olivencia eta Soriano (2008), Interculturalidad, gestión de la convivencia y diversidad cultural en la escuela: un estudio de las actitudes del profesorado. En Olivencia, J. J. L. *Revista Iberoamericana de Educación*, 46(2), 1-14.

Alemañy, C. (2009). Integración e inclusión: dos caminos diferenciados en el entorno educativo. *Cuadernos de Educación y Desarrollo*. Vol 1, Nº 2 (apirila 2009), <http://www.eumed.net/rev/ced/02/cam5.htm>

Álvarez, A. (2014). *Interculturalidad: concepto, alcances y derecho*. Mexico: Centro de Producción Editorial del GPPRD.

Barrio, J.L. (2008). Hacia una educación inclusiva para todos. *Revista complutense de educación*, 20(1), 13-31.

Bartolomé eta López (2008) Interculturalidad, gestión de la convivencia y diversidad cultural en la escuela: un estudio de las actitudes del profesorado, en Olivencia, J. J. L. *Revista Iberoamericana de Educación*, 46(2), 1-14.

Carbonell (2008) en Olivencia, J. J. L. Interculturalidad, gestión de la convivencia y diversidad cultural en la escuela: un estudio de las actitudes del profesorado. *Revista Iberoamericana de Educación*, 46(2), 1-14.

Castro, M. & Morales, M.E. (2015). Los ambientes de aula que promueven el aprendizaje, desde la perspectiva de los niños y niñas escolares. *Revista Electrónica Educare*, 19(3), 9.

Clemente, M. (2013). *Etiquetar a los niños: ¿Cómo influyen las etiquetas en niños y niñas?*. Educapeques. <https://www.educapeques.com/escuela-de-padres/el-peligro-de-etiquetar-como-evitarlo.html> [webgunetik berreskuratua](#)

Díaz, M. J. (2004). La formación del profesorado para una educación multicultural. *III Jornadas Pedagógicas de la Persona. Identidad personal y educación (2004)*, p 1-8, 1-8.

- Díaz, L., Torruco, U., Martínez, M., & Varela, M. (2013). La entrevista, recurso flexible y dinámico. *Investigación en educación médica*, 2(7), 162-167.
- Escarbajal, A. & Navarro, J. (2018). Evolución del abandono escolar en el alumnado extranjero y de origen inmigrante en la Región de Murcia. Un estudio enmarcado en los objetivos educativos del 'Horizonte 2020'. *International Journal of New Education*, 1(1)
- Escudero, J. M., & Martínez, B. (2011). Educación inclusiva y cambio escolar. *Revista iberoamericana de educación*, 55, 85-105.
- Fernández, A. (2003). Educación inclusiva: "enseñar y aprender entre la diversidad". *Revista digital UMBRAL*, 13. 1-10.
- García, M., & Oliveras, E. (1999). Formación del profesorado en educación intercultural. Un caso práctico. *Revista Interuniversitaria de Formación del Profesorado*, 36, 199-209.
- García, García, Moreno eta Herrero (2015). Estrategias y herramientas para la educación intercultural. en Abellaneda, M. (2015). *Diversidad cultural y estrategias de actuación en el aula*. Almería: Universidad de Almería.
- Hidalgo, V. (2017). Cultura, multiculturalidad, interculturalidad y transculturalidad: Evolución de un término. Cádiz: Universidad de Cádiz.
- Infante, M. (2010). Desafíos a la formación docente: inclusión educativa. *Estudios pedagógicos (Valdivia)*, 36(1), 287-297.
- Lumby, J., & Coleman, M. (2007). *Leadership and diversity: Challenging theory and practice in education*. Sage.
- LATAS, Á. P. (2002). Acerca del origen y sentido de la educación inclusiva. *Revista de educación*, 327, 11-29.
- López, A. (2005). La organización del espacio escolar: Un factor determinante para el cambio de las estructuras organizativas. *Revista de pedagogía*, 57 (4), 519-533.
- López, D. (2011). Educación e inmigración en Cataluña: un estado de la cuestión. *Documents d'anàlisi geogràfica*, 57(3), 551-562
- López, M. (2011). Barreras que impiden la escuela inclusiva y algunas estrategias para construir una escuela sin exclusiones. *Innovación Educativa*, vol. 21 (2011), 37-54.
- Moliner, L. & Moliner, O. (2010). Percepciones del profesorado sobre la diversidad. Estudio de un caso. *Revista de educación inclusiva*, 3(3), 23-34.



Muñoz, A. (2001). *Enfoques y modelos de educación multicultural e intercultural*. Trabajo universitario. Madrid: Universidad Complutense de Madrid.

Olivencia, J. J. L. (2008). Interculturalidad, gestión de la convivencia y diversidad cultural en la escuela: un estudio de las actitudes del profesorado. *Revista Iberoamericana de Educación*, 46(2), 1-14.

Ortega, I. (2004). *Ikasle etorkinentzat harrera plana egiteko orientabideak*. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia.

Septién, J.M. (2006). *Una escuela sin fronteras*. Vitoria-Gasteiz: Ararteko.

Retortillo, Á., Ovejero, A., Cruz, F., Arias, B., & Lucas, S. (2006). Inmigración y modelos de integración: entre la asimilación y el multiculturalismo.

Rodríguez Izquierdo, R. M. (2004). Atención a la diversidad cultural en la escuela. Propuestas de intervención socioeducativa. *Educación y Futuro: Revista de investigación aplicada y experiencias educativas*, (10), 37-48

Rodríguez, M. (2005). Concepto de diversidad. Vigo: Universidad de Vigo.

UNESCO (2005): *Diversidad cultural. Materiales para la formación docente y el Trabajo de aula*. Santiago, Chile

Sáez, R. (2003). La educación intercultural. *Revista de educación*, 339, pp 859-881. [http://www.revistaeducacion.mec.es/re339/re339\\_37.pdf](http://www.revistaeducacion.mec.es/re339/re339_37.pdf). Web gunetik berreskuratua 2018ko Otsailaren 2an.

Tanon de Toscano, G. (2011). La utilización del método comparativo en estudios cualitativos en ciencia política y ciencias sociales: diseño y desarrollo de una tesis doctoral. *Kairos: Revista de temas sociales*, (27), 7

Vaquero, A. (2005). El abandono escolar temprano en España: programas y acciones para su reducción. *Eduga: revista galega do ensino*, (47), 1442-1464

Walsh, C. (2005). *La interculturalidad en educación*. Perú. Ministerio de Educación. Dirección Nacional de Educación Bilingüe Intercultural

## 9. ERANSKINAK

### I. Eranskina

#### **HIPI-ARI ELKARRIZKETA**

- 1.-Azken urteotan nabaritu al duzue beste herrialde batzuetatik datozen ikasle kopuruak gora egin duela? Ikasturte honetan zenbat gutxi gora behera?
- 2.- Zein da ikasle hauen jatorria oro har?
- 3.-Zure ustez zein da faktorerik garrantzitsuena?
- 4.-Harrera plana egiterako garaian zeintzuk dira jarraitzen dituzuen pautak edo pausoak? Eredu bezala jarraitzen al duzue Eusko Jaurlaritzak duen protokoloa?
- 5.-Harrera plana egiterako garaian zeintzuk izaten dira parte hartzaileak?
- 6.-Ikasle Berri bat etortzen denean estamentuen arteko informazio-trukaketa egiten al duzu ikaslearen eta familiaren informazioa jasotzeko?
- 7.-Familiekin lehen kontaktua nolakoa izaten da? Zein informazio mota ematen diezue hasiera batean?
- 8.-Ikasleei dagokienez, ikasleei zein motatako harrera egiten zaie? Beste ikasleek parte hartzen al dute harrera horretan?
- 9.-Harrera Planaren berri izaten al dute ikastetxeko langile guztiek, hala nola, irakasleek, atezainak, jantokiko arduradunek, etab?
- 10.-Ikasturte honetako esperientzia ikusita, ikasle berri hauek nola egokitu direla uste duzu? Denbora asko behar izan dute? Eta gainontzeko ikasleen erantzuna nolakoa izan da?
- 11.- Bukatzeko, aipatuko zenituzke lanbide honek emandako gauza positibo bat eta negatibo bat?

## II. Eranskina

### **HIPI-ARI ELKARRIZKETA (Ordiziako Urdaneta Ikastetxea)**

#### **1.-Azken urteotan nabaritu al duzue beste herrialde batzuetatik datozen ikasle kopuruak gora egin duela? Ikasturte honetan zenbat gutxi gora behera?**

Azken hamar urteetan gora egin du zalantzarik gabe. Erkidegoan %6a bada etorkin kopurua, Ordizian %25a da. Horregatik eskolak asko nabaritu du beste herrialde batetik datozen ikasle kopuruak gora egin duela, gainera hauek normalean eskola publikora etortzen dira. Honekin jarraituz, azken 2-3 urteetan hainbat geletan gertatu da ikasleen %80a ez dela bertakoa. Kopuruari dagokionez, iaz adibidez urte osoan zehar 60 ikasle etorri ziren.

#### **2.- Zein da ikasle hauen jatorria oro har?**

Urdaneta Ikastetxean gehienbat, Nigeriarrak, Errumaniarrak, Marokoarrak eta Pakistandarrak. Horietaz gain, Madrildik, Bartzelonatik edota Valentziatik ikasleak etortzen dira, nahiz ta hauek Espainian jaio, ikasle hauen gurasoen jatorria desberdina da.

#### **3.-Zure ustez zein da faktorerik garrantzitsuena?**

Faktore ezberdinak daude. Agian garrantzitsuena “*efecto llamada*” delako hori izan daiteke. Adibidez, nigeriar familia bat dator, ondoren beste bat eta gero beste bat, azkenean komunitate bat sortzen dute beraien artean. Bestalde, harrigarria da lan aldetik ere ez dutelako aukera handirik. Hala ere Ordizia, “pasoko” leku bat bezala da. Hemen 3 edo 4 urte egoten dira eta ondoren beste leku batera joaten dira. Azken finean, horrek asko eragiten die ikasleei.

#### **4.-Harrera plana egiterako garaian zeintzuk dira jarraitzen dituzuen pautak edo pausoak? Eredu bezala jarraitzen al duzue Eusko Jaurlaritzak duen protokoloa?**

Bai, Hezkuntza Sailak hainbat protokolo ditu Harrera Planaren inguruan eta guk hori oinarri gisa hartzen dugu eta ondoren eskolak egokitu egiten du. Eskola honen kasuan, ikasleen errealitateak oso ezberdinak direla ikusita aurten Harrera Plan hori aldatu egin da. Nik, kulturartekotasuneko figura moduan, etorri berriei harrera egiten diet, hauei gauzak askoz zehatzago azaltzeko xedearekin. Horregatik, nire eginkizuna ikasle hauei eskola erakustea eta eskolako sistema erakustea da.

### **5.-Harrera plana egiterako garaian zeintzuk izaten dira parte hartzaileak?**

Harrera Plana egiterako garaian, aholkularia, zuzendaritzako taldea, HIPI-ak, tutoreak eta kulturartekotasuneko figura egoten gara.

### **6.-Ikasle Berri bat etortzen denean estamentuen arteko informazio-trukaketa egiten al duzu ikaslearen eta familiaren informazioa jasotzeko?**

Lehen aipatu moduan, gurasoekin egiten den elkarrizketa horren helburua ahalik eta informazio zehatzena jasotzen saiatzen gara. Bestalde, ikasle horren jatorrizko eskolarekin ere harremana izaten saiatzen gara, horretarako eskola horretako tutore eta zuzendariarekin elkarrizketa bat edukitzen saiatzen gara informazio gehiago lortzeko.

### **7.-Familiekin lehen kontaktua nolakoa izaten da? Zein informazio mota ematen diezue hasiera batean?**

Ikasle berri bat etortzen denean beti familia ezagutzen saiatzen naiz. Horretarako elkarrizketa zabal bat egiten diet, gai desberdinen inguruan, hala nola, beraiek zein ibilbide egin duten, nondik datozen, beraien herrialdean izan duten egoera nolakoa zen, eskolaren eta hauraren inguruan ere hitz egiten dugu, hona etortzeko arrazoiak zeintzuk diren, zergatik aukeratu duten Ordizia bizileku bezala, etab. Normalean hitz ordu bat baina gehiago egiten saiatzen gara, lehenengo beraiekin eta haurarekin, eta ondoren beraiei ikastetxea erakusten zaie. Bestalde, eskolaz kanpoko ekintzei buruz ere informazioa ematen diegu, gizarte zerbitzu edota bestelakoetara ere bideratzen ditugu familiak beraiekin harremanak edukitzeko. Azken batean informazio orokor bat ematen saiatzen gara.

### **8.-Ikasleei dagokienez, ikasleei zein motatako harrera egiten zaie? Beste ikasleek parte hartzen al dute harrera horretan?**

Ikasle berri bat etortzen denean, normalean ikasle hori pixkanaka-pixkanaka hasten da gelan sartzen. Lehenengo asteetan kultureteko figurarekin egoten da. Behin ikasle hori gelara sartzeko prest dagoenean, tutorearekin bilera bat egiten dut honi ikasleari buruz dudak informazio guztia helarazteko. Tutoreak ondoren informazio hori gelara eramaten du gainontzeko ikasleek ikasle berriaren informazio minimo bat jakiteko, hala nola, nondik datorren, zein den bere errealitatea, etab. Era berean, gelan enbaxadore bat izendatzen da ikasle honi laguntzeko. Enbaxadore hau bi edo hiru aste egoten da berarekin honi laguntza emateko. Enbaxadorea aukeratzeko unean lehenik ikaslea aztertzen da, bere herrialdea zein den, zein hizkuntza hitz egiten dituen, ea familiako

kideren bat ikastetxean duen, gelan bere hizkuntza dakien norbait dagoen, etab. Hori guztia kontuan hartuta enbaxadorea aukeratzen da.

**9.-Harrera Planaren berri izaten al dute ikastetxeko langile guztiek, hala nola, irakasleek, atezainak, jantokiko arduradunek, etab?**

Ikasle berri bat etortzen den unean, zuzendaritzak eskolako partaide ezberdinei ematen die horren berri, bai jangelako langileei edo beste langile batzuei. Bestalde, ziklo bileretan ikasle berriaren berri ematen da gainontzeko irakasleek informazio minimo bat edukitzeko, hots, ikaslea nor den, nondik datorren, etab.

**10.-Ikasturte honetako esperientzia ikusita, ikasle berri hauek nola egokitu direla uste duzu? Denbora asko behar izan dute? Eta gainontzeko ikasleen erantzuna nolakoa izan da?**

Ondo egokitzen dira baina hala eta guztiz ere baliabide falta bat nabaritzen dugu. Ikasle hauek hizkuntza faltaz gain, kulturalki dituzte txokeak, ohiturak gainditu behar dituzte. Ez daude ohituta hemen bezalaxe bizitzera eta horretarako egokitzapen bat behar dute. Horregatik irakasleok prestakuntza berezi bat behar dugu, ikasle eta irakasleen artean txokerik ez gertatzeko.

**11.- Bukatzeko, aipatuko zenituzke lanbide honek emandako gauza positibo bat eta negatibo bat?**

Gauza positibo moduan lanbide honek ematen duen aberastasun kulturala aipatuko nuke, hau da, beste herrialde bateko pertsonak, ohiturak ezagutzea. Aldiz, lehen aipatu bezala, aberastasun hori kudeatzeko zailtasunak daude baliabide falta direla eta. Bestalde, ikasle asko daudenez, HIPI-arentzat oso lan zaila da ikasle batetik bestera errealitatea asko aldatzen delako eta ikasle bakoitzak gauza ezberdin bat behar duelako.

### III. Eranskina

#### **HIPI-ARI ELKARRIZKETA (Gasteizko Aranbizkarra Ikastola)**

##### **1.-Azken urteotan nabaritu al duzue beste herrialde batzuetatik datozen ikasle kopuruak gora egin duela? Ikasturte honetan zenbat gutxi gora behera?**

Aranbizkarra Ikastolan azken urteetan jaso ditugun datuak hauek dira: 2014-2015 ikasturtean 21 ikasle, 2015-2016 ikasturtean 17 ikasle, 2016-2017 ikasturtean 18 ikasle eta azkenik 2017-2018 ikasturtean 30 ikasle. Datuetan ikusi daitekeen moduan, orain dela hiru ikasturte ikasle kopuru hori zertxobait jaitsi zen. Aldiz, ikasturte honetan jaso izan dugun igoera nabaria izan dela esan daiteke.

##### **2.- Zein da ikasle hauen jatorria oro har?**

Ikasle hauen jatorria oso anitza da. Honen adibide, aurtengo ikasturtean dugun ikasleriaren jatorria, hala nola, Moroko (9), Dominikar Errepublika (6), Kolonbia (2), Senegal (2), Venezuela (2), Errumania (1), Paraguai (1), Galizia (1), Txina (1), Argelia (1), Pakistan (1), Nigeria (1), Brasil (1), eta Extremadura (1).

##### **3.-Zure ustez zein da faktorerik garrantzitsuena?**

Ikasle edo hobe esanda familia hauen egoera ( ekonomikoa, soziala, kulturala...) kontuan hartzea eta hasieratik hartu-eman zuzena izatea oso garrantzitsua da. Gure errealitatea ezagutu behar dute eta eskola komunitatea gertu sentitu. Guregana datozen familia berrien inplikazioa lortzeko, lehenik hauek komunitateko kide direla sentitu behar dute.

##### **4.-Harrera plana egiterako garaian zeintzuk dira jarraitzen dituzuen pautak edo pausoak? Eredu bezala jarraitzen al duzue Eusko Jaurlaritzak duen protokoloa?**

Familiarekiko lehenengo kontaktua Idazkariak izaten du. Zenbait datu jasotzen du daukagun txantilo baten bitartez. Ondoren, Zuzendariak familiarekin beste elkarrizketa bat mantentzen du. Elkarrizketa honen xedea familia eta ikaslearen ezagutza zabaltzea da, Idazkariak jasotako datuak osatzeko. Bestalde, beharrezkoa ikusten bada, Kokapen Batzordeak zenbait froga pasa ahal dio ikasleari, gela eta maila egoki batean kokatzeko. Batzorde honek ere erabakitzen du ikaslea nola sartuko den gelan: progresiboki, jantokia,... Batzorde honen partaideak Zuzendaria, Aholkularia eta HIPIak dira.

### **5.-Harrera plana egiterako garaian zeintzuk izaten dira parte hartzaileak?**

Zuzendaria, Ikasketa Burua, Idazkaria, eta HIPlak.

### **6.-Ikasle berri bat etortzen denean estamentuen arteko informazio-trukaketa egiten al duzu ikaslearen eta familiaren informazioa jasotzeko?**

Bai. Hasiera batean beti saiatzen gara aurreko eskolari, ikasle horren dokumentazio osoa eskatzen, eskuartean ikasle horri buruz ahalik eta informazio gehien eduki ahal izateko.

### **7.-Familiekin lehen kontaktua nolakoa izaten da? Zein informazio mota ematen diezue hasiera batean?**

Aurretik aipatu dugun moduan, lehenengo kontaktuak Idazkariak eta Zuzendariak izaten dituzte. Idazkariak jasotzen duen informazioak alde burokratikoa betetzen du. Zuzendariak hartzen duenak alde soziala.

### **8.-Ikasleei dagokienez, ikasleei zein motatako harrera egiten zaie? Beste ikasleek parte hartzen al dute harrera horretan?**

Ikasleen harrera progresiboa izaten da, beti ere haien adina eta egoera pertsonala kontutan hartuta. Bere gelakideekin harremanak indartzeko oso lagungarriak dira erabiltzen ditugun dinamikak, hala nola, talde elkarreragileak, tertulia dialogikoak, irakurlaguna, bikoteka irakurtzen,...

### **9.-Harrera Planaren berri izaten al dute ikastetxeko langile guztiek, hala nola, irakasleek, atezainak, jantokiko arduradunek etab?**

Koordinazio minimoa ematen da. Adibide moduan, ikasle berri hau jantokian geratzen bada, bertako arduradunekin hitz egiten da.

### **10.-Ikasturte honetako esperientzia ikusita, ikasle berri hauek nola egokitu direla uste duzu? Denbora asko behar izan dute? Eta gainontzeko ikasleen erantzuna nolakoa izan da?**

Orokorrean, ikasleak nahiko ondo egokitzen dira. Arazoak sortuz gero, hizkuntzarengatik baino, beste alde batzuegatik agertzen dira: familia egoera, ikasteko zailtasunak,... Egoera normal batean, ikasleak berehala gustura sentitzen dira eta beste ikasleen jarrera oso positiboa izaten da.

**11.- Bukatzeko, aipatuko zenituzke lanbide honek emandako gauza positibo bat eta negatibo bat?**

Gauza positibo moduan, guk eginiko lana berehala nabaritzen dela. Ikasleek oso azkar ikasi ohi baitute. Alderdi negatibo bezala, egiten dugun lana nahiko errepikakorra dela, hau da, beti arlo berbera eta maila berbera (hasierakoa) irakatsi behar dugulako.